

Betebeharra ala eskubidea? Memoria-legeen aldeko eta kontrako argudioei buruzko azterketa kriminologikoa

Jon Gómez Garmendia

Kriminologoa. Zuzenbide eta Politika Zientzietan doktorea

Azken urteotan, memoria gizarte-eztabaidaren objektu bihurtu da. Iraganarekin zer egin eta zein biktimari aitortza eta erreparazioa eman galderek gizartea zatitu dute, bereziki gai hauen testuinguruan erantzun juridiko-politikoak eman direnean. Banaketa eta tentsio hauetatik abiatuta, testu honek memoriak gaitzen salaketan leku zentrala duela aldarrikatzeko helburua dauka. Horretarako, 2023ko Euskadiko Memoria Historikoaren eta Demokratikoaren Legea gidalerro harturik, memoria betebehar moral moduan, bizikidetzeta eta adostasuna hausteko errekurtsu totalitario gisa edo eskubide zibil moduan interpretatzen duten aukerak aurkeztuko dira. Hiru jarrera horien desadostasun eta argudioetan oinarriturik, berrets daiteke memoriak biktimekiko arretan, herritarren parte-hartzean eta bidegabekeria handienekin gertatu zenaz eta gertatzen denaz ez ahazteko baliabideak eskaintzen dituela.

GAKO-HITZAK: Memoria · Politika publikoak · Biktimak · Filosofia politikoa.

Duty or right? Criminological analysis of arguments for and against of memory laws

In recent years, memory has become an object of social debate and controversy. What to do with the past and how victims recognize and repair have been decisions that have divided society, especially when they have brought with them legal and political responses. Based on these divisions and tensions, this text aims to claim that memory has a central place in the reporting of memory diseases. To do this, in the framework of the Law of Historical and Democratic Memory of the Basque Country of 2023, will be presented the different possibilities of interpretation of memory as a moral duty, totalitarian resource to break coexistence and consensus or as a civil right. Based on the discrepancies and arguments of three these attitudes, it can be affirmed that memory offers resources in the care of victims, citizen participation and not to forget what happened and happens with the greatest injustices.

KEY WORDS: Memory · Public Policy · Victims · Political philosophy.

<https://doi.org/10.26876/uztaro.5124>

Jasotze-data: 2024-08-27 **Onartze-data:** 2024-12-12

1. Sarrera

Memoriaren esparrua gaurkotasuneko gai bihurtu da, mugimendu sozial, elkarte eta kolektibo askok haien aldarrikapenak eginez aitortza eta erreparazioa eskatu baitute. 9/2023 Legea, irailaren 28koa, Euskadiko Memoria Historikoarena eta Demokratikoarena, eskaera horiei erantzun bat ematen ahalegintzen den tresnetako bat da. 2023ko irailean Eusko Legebiltzarreko parlamentarien % 90 baino gehiagoren bozkarekin onartu zen legea, zeinak XX. mendeko kolpe militarren ondorengo Gerra Zibilaren eta frankismoaren biktimak aitortzeko eta haiei dagokien erreparazioa emateko helburua duen.

Aipagarria da, baita ere, giza eskubideen nazioarteko zuzenbidearen testuinguruko arauetan oinarritzen dela, hala nola Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsala (1948), Eskubide Zibil eta Politikoen Nazioarteko Ituna (1966), Eskubide Ekonomikoen, Sozialen eta Kulturalen Nazioarteko Ituna (1966) edo 60/147 Ebazpena, Nazio Batuen Batzar Nagusiak 2005eko abenduaren 16an onartu zuena, giza eskubideen nazioarteko arauen ageriko bortxaketen biktimek eta nazioarteko zuzenbide humanitarioaren bortxaketa larrien biktimek errekurtsoak aurkezteko eta erreparazioa lortzeko duten eskubideari buruzko oinarritzko printzipio eta jarraibideak ezartzen dituen. Bere testuinguruari erreparatzen badiogu, ordea, memoria tentsiogai dela ikus dezakegu.

Adibidez, 9/2023 Legea, urtebete lehenago Espainiako Estatuan onarturiko 20/2022 Legearekin erlaziona daiteke. «Memoria demokratikoaren legea» izenarekin ezagunagoa den legislazioa, zeinak Espainiako Estatuan memoria demokratikoa berreskuratzea, babestea eta zabaltzea helburu duen, biktimei erreparazioa ere eskainiz. Era berean, hainbat erkidegotan antzeko arauak onartu dira azken bi hamarkadetan —adibidez, 2007an Katalunian; 2013an Nafarroan; 2017an Valentzian eta Andaluzian; 2018an Gaztela eta Leonen, Balearretan, Kanarietan eta Aragoi; 2019an Extremaduran eta Asturiasen; 2021ean Kantabrian; edo 2022an Errioxan—.

Hala ere, azkenaldian memoria gizartearen ahotan dagoen gaia da, hauetariko lege batzuk indargabetu edo indargabetzeko arriskuan egon direlako alderdi ultra-eskuindarrek lorturiko boterearen ondorioz. Adibidez, Aragoi, Valentziako Erriogoa, Gaztela eta Leonen, Balear Uharteetan eta Kantabrian *memoria betebeharrak* gisa interpretatzen duten politika publikoak kontrako argudio ideologiko batekin topatu dira: legeek historiaren ikuspegi alderdikoi baten aldeko apustua egiten dutela. Hau da, ez dietela herriarrei iragan historikoari buruzko azterketa egiteko askatasuna bermatzen, baldintzapen sozial jakin bat inposatzen baitute.

Tentsio hauek galdetzeraz garamatzate zer esanahi ematen diogun memoriari eta egokiena zein izan litekeen. Horrela, honelako galderak planteatzen dira: zertaz ari gara memoriari buruz hitz egiten ari garenean? Zein da haren edukia? Soziokulturalki kontrolatu daitekeen zerbait da? Memoria-gaiak legeen bidez arautu beharko lirateke? Zer eginkizun izan beharko luke politikak esanahi horien gainean? Ez al da memoria eduki subjektiboa duen esparru bat? Interesik jarri behar diogu?

Kontrako argudio horiek esparru ideologiko-politikotik at ere koka daitezke. Akademiatik, adibidez, badira memoriaren legislazio hau kritikatu izan dutenak, «arrazoi errukior» baten irudipean, memoria-legeek biktimak muinean jartzen dituztelako. Ricard Vinyes historialari kataluniarrak edo Elizabeth Jelin argentinar soziologoak, esaterako, sufrimendua eta errukia legeen epizentroa izatea zalantzan jartzen dute. Haien ustetan, *memoria eskubide zibil* gisa ulertzen duen «bira memorialista» bat egiten ari da. Oroitzapen-ekintza «betebehar» gisa interpretatu beharrean, memoria eskubide moduan interpretatzen duen joera, Administrazioa herritarrek iraganeko irudia eraiki ahal izateko aukerak bermatzera bideratuz.

Testu honek memoriak gaitzen salaketan leku zentrala duela aldarrikatu nahi duen heinean, memoria-legeak eta gai honekin lotura duten politika publikoak defendatzeko, erasotzeko eta hobetzeko argudioak aurkeztea eta eztabaidatzea du helburu. Ondorioz, Euskadiko Memoria Historikoaren eta Demokratikoaren Legea gidalerro harturik, idazki honek beste erkidego batzuetan gertatu dena ez errepikatzeke oinarri filosofiko eta teorikoak lantzea du xede. Horretarako, azterketarikuspegia kriminologia kritiko global baten lan-esparruan kokatzen da: krimenei, gizarte-kaltei edo egiturazko indarkeriei aurre egitea helburu duen korrante kriminologikoa, zuzenbide penalak mugaturiko ikuspegitik ateratzen dena¹.

Edukiari dagokionez, jarraian memoria-legeen ibilbide labur bat egin ostean, haien edukia betebehar moralaren ikuspegian oinarritzen dela erakusten duten argudioak aurkeztuko dira. Horrela, memoria zapalduen ikuspegitik ulertzen duen moduaren ezaugarri nagusiak deskribatuko ditugu, besteak beste, interpretazio hau Theodor Adornok proposaturiko inperatibo kategoriko negatibotik —etengabeko salbuespen-egoeran bizi garela baieztatuz, gaitzak berriro errepika ez zitezen ahal genuen guztia egin behar genuela zioena— abia daitekeela azalduz.

Hurrengoko atalak, aipatu ditugun indargabetzeen ildoan, memoria-legeen aurkako argudio ideologikoak aurkeztea izango du helburu. Horretarako, lege berrietan eta legebiltzarretan eztabaidaturikoa aipatuko dugu, ohartaraziz, argudio hauek memoria-legeak erasotzen dituztela. Hau, ordea, ez da kontrako beste argudio batzuekin gertatzen, modu konstruktibo edo hobekuntzarako bide batean memoria interpretatzeko proposamenekin. Laugarren atalean, memoria eskubide zibil gisa defendatzen duten argudioak aurkeztuko dira.

Azkenik, memoria-legeen aldeko eta kontrako argudioak aurkeztu ondoren, ondorio moduan etorkizunerantz begiratzen duen hausnarketa bart aurkeztuko da. Memoriaren alorrean politika publikoek kontuan hartu beharreko edukian zentratzen den hausnarketa, non, zergatik ez, posible litzatekeen aipaturiko hainbat argudio kontuan hartzea eta memoria betebehar moral gisa, baita eskubide zibil gisa ere, ulertzea.

2. Memoria-legeen edukia betebehar moralaren ikuspegitik

Memoria-legeak Bigarren Mundu Gerraren osteko testuinguruan kokatu daitezke batez ere. Esaterako, Europar Batasunaren «mito fundatzailearekin» lot daitezke,

1. Kriminologia kritiko globalari buruz gehiago jakin nahi izanez gero, ikus Gómez Garmendia, 2024.

bakearen aldeko proiektupean, aurreko hamarkadetan gertaturiko gaitzak berriro ez errepikatzeko ideiarekin (Sierp, 2019, 17. or.). Horiek, ordea, esparru sinboliko batean oinarritu ziren hasieran, 70eko hamarkadan politika publikoen diseinu nabarmengarria sustatu zen arte. Espainiako Estatuan, adibidez, Gerra Zibileko biktimak erreparatzeko lehen politikak diktadura osteko lehen gobernuarekin bideratu ziren, nahiz eta indemnizazioak eta eskubideak erregulatzeko, diktaduraren aztarnak ezabatzeko eta frankismoa kondenatzeko orduan desadostasunak izan (Aguilar Fernández eta Jimeno Aranguren, 2023, 69. or.).

XX. mendearekin, ordea, memoria-legeen legislazioak etengabeko bultzada izan zuen. Adibidez, Espainiako Estatuan jarraituz, 2006. urtean 24/2006 Legea onartu zen, zeina urte hori Memoria Historikoaren urtetzat kontsideratzen zuen deklarazioa izan zen. Hala ere, hura aurrera ateratzeko bozkak lortzeko unean, garai hartako *Convergència i Unió* (CiU) alderdiak zuzenketa bat aurkeztu zuen, non, Legeari Xedapen Gehigarri bat atxikiz, Espainiako Gobernuak handik hilabete batera Guerra Zibilaren eta frankismoaren biktimen egoera islatzen zuen txosten bat aurkezteko mandatua ezarri zuen.

Txosten hura 2007ko Memoria Historikoaren Legearen proiektua aurkezteko oinarria izan zen. Ez zen, ordea, 2007ko abenduaren amaierara arte onartu, alderdi politikoen artean desadostasuna baitzegoen. Adibidez, Alderdi Popularrak osoko zuzenketa bat aurkeztu zuen «epea kanpoko» lege «hipokrita bat zela» aldarrikatuz, «adostasun-paktuaren» aurka egiten zuen pausoa, demokrazia egituratzen zuen erregimen politikoa boikotatuz: trantsizioa eta hitzarmen konstituzionala. Aldi berean, Esquerra Republicana de Catalunya (ERC) eta Izquierda Unida-Iniciativa per Catalunya Verd (IU-ICV) alderdiek testu alternatiboak aurkeztu zituzten aurkezturiko testua oso azalekoa zela kontsideratuta (Aguilar Fernández eta Jimeno Aranguren, 2023, 75. or.).

«52/2007 Legea, abenduaren 26koa, Gerra Zibilean eta diktaduran jazarpena edo indarkeria jasan zutenen eskubideak aitortzen eta zabaltzen dituen, eta haien aldeko neurriak ezartzen dituen», hala ere, ondorengo hamarkada bateko baino gehiagoko tartean «hibernazio-egoera» batean egon zela baieztatu dezakegu. Horrek zituen aitortpenerako, erreparaziorako eta memoria berreskuratzeko helburuak ez ziren bete kasu askotan, frankismoaren krimenak eta Gerra Zibilak buruturiko biolentziak salatzekeko oztopoak egon baitzeuden: 1977ko Amnistia Legeak ezarritako oztopoak (Cuesta, 2019, 49. or.). Horrexegatik, Guixék, Alonso Carballések eta Conesak (2019, 12. or.) dioten moduan, igel baten jokaerarekin antzekotasunak bilatuz, memoria-politikak negu luze batean kokatu ziren, geldi, izoztuta, energia kontrolatuz behar sozialei jaramonik egin gabe.

Ondorioz, lege horren mugak eta beste zenbait ahultasun konpontzeko helburuarekin, hainbat erkidegotan memoria-lege propioak onartu ziren —sarreran aipaturikoen ildoan—. Adibidez, Nafarroan, «33/2013 Foru Legea, azaroaren 26koa, 1936ko kolpe militarren ondorioz eraildako eta errepresioaren biktima izandako Nafarroako herritarrei errekonozimendua eta ordain morala ematekoa» nabarmendu genezake. Legislazio horretan, besteak beste, hilotzak lurpetik ateratzeko protokoloa,

sinbolo frankistak kentzeko bideak edo hezkuntza-arloan eskola-testuetan egiazko informazioa bermatzeko neurriak arautu ziren.

Neurri horiek, memoriaren alorreko ikerketekin bat eginik —baita memoria-legeekin ere—, plano filosofiko edo etiko batean *memoria betebeharrak moral gisa* interpretatzen dutela baieztatu genezake. Adibidez, interpretazio modu hau bat dator «inperatibo kategoriko negatiboan» deitu izan den kontzeptuarekin. Proposamen hori Theodor Adornok—Frankfurteko Eskolako pentsalaria²— eman zuen Holokaustoaren ondoren zientziek hartu behar zuten bidea markatuz: «Pentsamendua eta ekintza Auschwitz ez erreplikatzera bideratu behar dira horrelakorik berriro gerta ez dadin» (Rivera Beiras, 2016, 2. or.). Haren hitzak harturik:

Hitlerrek inperatibo kategoriko berri bat ezarri die herritarrei egungo esklabotza-egoerarako: pentsamendua eta ekintza Auschwitz ez erreplikatzera bideratzea, horrelakorik berriro gerta ez dadin. Agindu hori Kanten inperatiboaren izaera faktikoa bezain arrazoigabea da. Hori diskurtsiboki tratatzea krimena litzateke: horretan, etikotasunak dakarren faktore gehigarria ukigarri bihurtzen da. Ukigarria, gorpuzduna, gizabanakoek jasaten duten min fisiko jasanezinaren higuina adierazten duelako, praktikoa, nahiz eta indibidualtasuna, gogoetarako forma espiritual gisa, bere amaierara iritsi (Adorno, [1966]1984, 365. or.).

Hau da, Kanten inperatibo kategorikoa gogoratuz —«Joka ezazu lege unibertsal bihurtzea nahi duzun maximaren arabera soilik» (Kant, [1797]2008, 241. or.)—, nazismoak eragindako gertakarien ondoren, Adornorentzat mandatu hura plano negatiboan ulertu beharra zegoen. Max Horkheimer pentsalariarekin idatzi zuen *Ilustrazioaren Dialektika* ([1944]2016) lanean aipaturiko tesien ildotik, Auschwitz bezalako eremuetan gertatutako egitateak *arrazionalak* izan ziren aurrerapenaren aldeko arrazoi iluministak mundua magiatik liberatu ordez —Kanten helburu emantzipatzaileen harira— natura eta pertsonak menderatzeko erabili baitziren.

Horren ondorioz esan genezake «berriro ez erreplikatzeko» ideiek gerraosteko politika publikoetan norabide bat markatu zutela: Holokaustoarekin gertaturikoak ez duela esan nahi sufrimenduari begiak ixten dizkiogunik, baizik eta une oro irekita eduki behar ditugula, emaitza arrazional horiek berriro gerta baitaitezke —eta gertatzen dira— (Mate, 2005, 19. or.). Hau da, aurrerapenaren izenean eragindako biktimak ardatz harturik, memoriaren eduki epistemiko guztia mobilizatu beharra dago, haien begiraden atzean egia baitago; baina «ez biktima horiei gertaturiko egia, baizik eta guztiok aurkitzen garen egia erlatiboa» (Mate, 2008, 28. or.).

Esaterako, gure gidalerroa izango den 9/2023 Legeak, irailaren 28koa, Euskadiko Memoria Historikoarena eta Demokratikoarenak, bere Zioen Azalpenean tresna bati egiten dio erreferentzia, «gertatutakoa ez erreplikatzeko bermeak ezarriko dituen tresna». Horretarako, «gertakari historikoen bidegabekeria jasan zuten biktimak» ardatz bihurtzen dira, atzera begiratzeak etorkizunean eragina izango duela aitortuz:

2. Frankfurteko Eskola eta kriminologia kritiko globala lotzen dituen historia ezagutu nahi izanez gero, ikus Gómez Garmendia, 2023, 9-30. or.

Euskadiko Memoria Historikoaren eta Demokratikoaren Legeak ez dio iraganari begiratzen Gerra Zibilak eta ondorengo errepresioak Euskal Autonomia Erkidegoan eragin zituzten sufrimenduan eta min bidegabean erremediorik gabe harrapatuta geratzeko. Legearen xedeak, atzera begira, memoria historikoa du oinarri, baina begirada eta helburu nagusia aurrerantz jarriak ditu, demokraziarantz (Lehendakaritza, 2023).

Memoria, hortaz, betebeharrak moral gisa ulertzen du legeak, «funtsezko elementu» kontsideratzen baitu «etorkizunean krimen horiek berriro gertatzea saihesteko programa arauemaileak ezartzeko eta, aldi berean, bizikidetzaren oinarri demokratikoak finkatu eta sendotzeko». Adibidez, modu zuzenago batean, bere Printzipio Orokorrak zehazten dituen 2. artikuluko 4. azpiatalak, egia jakiteko, justizia izateko, aitortza eta erabateko erreparazio eraginkorra izateko eskubideetan oinarrituz, honako hauxe dio: «[hauek] memoria-betebeharrarekin osatu behar dira aldi historiko horretan gertatu ziren indarkeriazko gertaerak eta egoerak ez errepikatzeko berme gisa».

Gainera, biktimen figura aldarrikatuz, 4. artikulua arabera, legearen hartzailetzat kontsideratzen dira «banaka edo taldeka, kalte fisikoa, morala edo psikologikoa, ondare-kalteak edo oinarritzko eskubideen funtsezko galera» jaso dituen pertsona oro «1936ko uztailaren 18ko estatu-kolpea, ondorengo gerra eta diktadura hartzen dituen aldian, 1978ko Espainiako Konstituzioa indarrean sartu arte igarotakoa barne». Arreta berezia eskaintze die pertsona eta kolektibo konkritu batzuei (1. taula).

1. taula. 9/2023 Legearen arabera arreta berezia merezi duten hartzaileak.

a) Bonbardaketen, epaiketaz kanpoko exekuzioen edo exekuzio sumarisimoen ondorioz hildako biktimak, espetxean hildako pertsonak eta kolpe militarren eta diktadura frankistaren aurka legezkotasun demokratikoa defendatzearen ondorioz hildako edo desagertutako pertsonak.
b) Kolpe militarren eta diktadura frankistaren aurka legezkotasun demokratikoa defendatzearen ondorioz Euskal Autonomia Erkidegoan zein Euskal Autonomia Erkidegotik kanpo espetxeratu, torturatu, deportatu eta bortxazko lanak egitera behartu edo kontzentrazio- edo deuseztatze-esparruetan sartu zituzten pertsonak.
c) Kolpe militarren eta diktadura frankistaren ondorioz erbesteratu ziren pertsonak.
d) Diktadura frankistaren ondorioz errepresio ekonomikoa, konfiskazioak, desjabetzeak, isunak edo era guztietako ondasun higigarri edo higiezinak konfiskatzeko jasan zituzten pertsonak.
e) Bigarren Errepublikan kargu edo lanpostu publikoren bat izateagatik edo diktadura frankistarekiko ustezko edo benetako atxikipen-ezagatik errepresaliak jasan zituzten edo kaleratuak izan ziren pertsonak.
f) Masoneria eta Komunismoa errepresioarekin buruzko 1940ko martxoaren 1eko Legearen babesean eratutako auzitegiak jazarri eta epaitu zituen pertsonak.

g) Beren ideologia eta lanbideagatik errepresioa jasan zuten pertsonak, batez ere Bigarren Errepublikako maisu-maistrak.
h) Orientazio afektibo-sexuala, sexu-ezaugarriak edo sexu-identitatea edo -adierazpena dela-eta edo gutxiengo etniko bateko kide izateagatik errepresioa jasan zuten pertsonak.
i) Diktadura frankistan euskara erabili, sustatu, zabaldu eta irakasteko debekua zela-eta jazarpena eta errepresioa jasan zuten pertsonak.
j) Bigarren Errepublikan beren askatasuna baliatzeagatik edo besterik gabe emakume izan eta beste biktima batzuekin zerikusia izateagatik umiliazioa, indarkeria edo zigorra jasan zuten emakumeak.
k) Langileen lan-eskubideak defendatzeagatik jazarpena eta errepresioa jasan zuten pertsonak.
l) Guraso biologikoei lapurtu eta, haien baimenik gabe, adopzioko aita eta amei entregatutako adingabeak.
m) Askatasunen eta demokraziaren alde eta diktadura frankistaren aurka borrokatu zuten alderdi politiko, sindikatu, masoi-logia, mugimendu feminista eta asoziatiboak
n) Gerrilla antifrankistan parte hartzeagatik edo haiei laguntzeagatik errepresioa jasan zuten pertsonak, eta altxamendu militarren kontrako borrokan parte hartzeagatik errepresioa jasan zuten nazioarteko boluntarioak.
o) Beren egoera berezia dela-eta lege honen 43. artikuluan aipatzen diren planetan [Gogora Institutuaren Zuzendaritza Kontseiluak lau urterako planak onetsiko ditu, zeinek, besteak beste, memoria historikoari buruzko politika publikoak gidatuko baitituzte, eta horiek aurrera eramateko finantza-baliabideak zehaztuko] sartzen diren beste kolektiboak.

Iturria: 9/2023 Legea, irailaren 28koa, Euskadiko Memoria Historikoarena eta Demokratikoarena, 4. artikulua, 2. azpiatala.

3. Memoria-legeak indargabetzeko argudio ideologikoak

Espainiako Estatuak Eskubide Zibil eta Politikoen Nazioarteko Ituna eta Torturaren eta bestelako tratu edo zigor krudel, anker edo apalesgarrien aurkako Konbentzioa berretsi, eta Europako Kontseiluaren Batzar Parlamentarioaren 2006ko martxoaren 17ko Gomendioa jaso ondoren —non ekintza frankistak «Giza Eskubideen urraketa larriak» bezala gaitzetsi ziren— aipatu izan dugun 52/2007 Legea onartu zuen. Orain arte bukatu gabe dagoen prozesu baten adibide historikoa, Josefina Cuestaren aburuz (2019, 44. or.), adostasuna erakutsi ordez, gatazkak areagotu izan zituena —2007ko Legearen aurreproiektuan alderdi politikoek emaniko argudioak horren erakusgarri dira—.

Gatazka haien artean, hainbat elkartek, bai aurreproiektuaren garaian, bai legea onartu ondoren, aldaketa-eskaerak egin zituzten. Adibidez, Federación Estatal de Foros por la Memoria (FEFM) delakoak «No hay atajos: Verdad, Justicia y Reparación» jakinarazpenean salatu zuen legeak ez zituela auzitegi frankisten

sententziak indargabetzen, eta Desobiratzeen Lege Integral baten falta edo epe motzean monumentu, ikur, nomenklatura edo toponimia frankistak ezabatzeko neurri zehatzen falta sumatzen zuela (FEFM, 2007). Nizkor Taldeak —hainbat erakunde eta aktibistaren laguntzarekin giza eskubideetan espezializaturiko nazioarteko organismoa—, norabide berean, «Una ley aberrante» izenburupean, legeak frankismoaren biktimak aitortzen ez zituela aldarrikatu zuen, ezta legezkoak ez diren hobi komunak desobiratzei aurre egitea ere, epaiketa eta exekuzio sumarioen indargabetzearen deklaraziorik eza edo herritarrei errepresioaren artxiboetara eskuragarritasuna bermatzeko neurri falta (Nizkor Taldea, 2007).

Ondorengo urteetan berretsi egingo ziren kritika horiekin lotuta, «hibernazio-egoera» sustatu zuen beste pizgarri bat Espainiako Estatuko gobernu-aldaketa izan zen 2011n. Momentu horretatik aurrera, Alderdi Popularra gobernuan zegoela, desobiratze eta memoria berreskuratzeko proiektuak egiteko baliabide ekonomikoak mugatu egin ziren aurrekontu-etenaldi baten ondorio. Gainera, hurrengo urteetan, nazioarteko maila batean, Espainiako Estatuko memoria-legeek kritikak jaso zituzten, esaterako, 2014. urtean Pablo de Greiff «Egia, justizia, erreparazio eta ez erreplikatzeko bermeetarako Errelatore Bereziak» eta Bortxaz Desagerrarazien Lantaldeak aurkeztutako txostenen eskutik.

Errelatore Bereziak, adibidez, Espainia 2014ko urtarrilaren 21etik otsailaren 2ra bisitatu ostean, igarri zuen «biktimen tratamendu asimetriko batek [...] eskubideen kontsiderazio baten kaltetan, afiliazio politiko eta alderdikoei biktimen aldarrikapenak asimilatzea» lagundu zuela. Horregatik, politika alderdikoi baten beharrean eskubide eta printzipio orokorrak defendatuz honako haxe eskatu zuen: «Estatuak konpromiso irmoa erakustea, egia, justizia, erreparazioa eta ez erreplikatzeko bermeak izateko eskubideak erabat emateko orduan», 2007ko Legea zorrozki ebaluatzea eta gizartearen eta instituzioen artean koordinazioa eta interakzioa sustatzea (NBBN, 2014a, 20. or.).

Bestalde, Bortxaz Desagerrarazien Lantaldeak, Errelatorearen norabide berari jarraituz, Espainiako Estatua «Bortxaz desagerrarazien arloan presaz eta bizkor jardutea», «nazioarteko betebeharrak bere gain hartzea [...] eta konpromiso aktiboa goa eta premia-koagoa hartzea Gerra Zibilean eta diktaduran desagertutako pertsonen egoera zehazteko» edo «senideei eta senideen elkartei babes instituzional eta finantzario handiagoa ematea» aldarrikatu zuen (NBBN, 2014b, 17-20. or.).

3.1. Memoria Demokratikoaren 20/2022 Legearen aurkako argudioak

Gorabehera eta geldiarazpen-egoera honi irtenbidea emango zion pausoa ez zen orain dela gutxira arte eman. 2022ko uztailaren 14an, aldeko 173 botorekin, kontrako 153 botorekin eta 14 abstentziorekin, Espainiako Kongresuak «20/2022 Legea, urriaren 19koa, Memoria Demokratikoari buruzkoa» onartu zuen. Lege horrek, «memoria demokratikoa berreskuratu, babestu eta hedatzea» du xede, 1936tik 1978ra aitortza emanez «jazarpena edo indarkeria jasan zuten pertsonen, baldin eta egoera horiek honako arrazoi hauengatik gertatu baziren: arrazoi

politikoak, ideologikoak, pentsamenduzkoak edo iritzizkoak, kontzientziazkoak edo erlijio-sinesmenekoak, sexu-orientaziokoak eta sexu-identitatekoak». Gainera, helburutzat hartzen ditu, baita ere, «pertsona horien erreparazio moralak sustatzea eta beren memoria pertsonal, familiar eta kolektiboa berreskuratzea» eta «neurri osagarriak hartzea herritarren arteko bereizketa-elementuak desagerrarazteko eta Konstituzioaren balio, printzipio eta eskubideen inguruko loturak sustatzeko» (Estatuko Buruzagitza, 2022).

Horrela, 20/2022 Legea onartu zen aurreko 2007ko Memoria Historikoaren Legearen hutsuneak betetzeko eta neurri garatuagoak aplikatzeko behararekin, beste politika batzuen artean, Gerra Zibilaren eta frankismoaren gorespena ekiditeko pausoak hartuz. Gainera «Biloben Legea» izenez ere ezaguna egin zen Latinoamerikan, atzerrian jaiotako espainiar odol-ahaideek herritartasun espainiarra eskatzeko aukera arautzen zuelako (Aguilar Fernández eta Jimeno Araguren, 2023, 68/72. or.).

Lege hori onartzeko momentuan, noski, argudio ideologiak egon ziren, 2007ko argudioekin konparatuta, muturreko diskurtso batean gauzatu zirenak —garai hartan Alderdi Popularrak, Vox alderdi ultraeskuindarraren presentziarekin, bozkak lortzeko lehia bizia egon baitzen—. Esaterako, 20/2022 Legearen aurreproiektuari zuzenketa osoa egiteko proposamenetan, Alderdi Popularrak legea «desegokia eta beharrezkoa ez zela» kontsideratu zuen, argudiatuz «espainiar guztien arteko adiskidetze-prozesu eredugarria dinamitatzen zuela, Trantsizioa, espainiar historiaren erreferente argia mundu-mailan».

Argudio haiek muturreraino eraman zituzten, «volar por los aires» deskribapen esanguratsuarekin 40 urteren inguruan elkartasun-, barkamen- eta adiskidetze-espirtua posible egitea ahalbidetu zuen elkarbizitza baketsua leherraraztea kritikatu zutenean. Vox alderdiarekin bat egiten zuten antzeko kritikak, non 2007ko legea «ezkerraren mekanismo legitimatzaile eta eskuinaren deslegitimatzaile gisa historia faltsifikatzeko lehen baliabide sistemakoa» kontsideratzen zuten, 2022koa «lege totalitarioa» zela defendatuz, espainiarren batasuna zatitzen zuen politika totalitarioa (Aguilar Fernández eta Jimeno Araguren, 2023, 79. or.).

Bestalde, giza beharretan oinarrituta, ERC alderdiak, adibidez, ordezeko testua aurkeztu zuen. Kataluniarren ustetan, 2007ko legeak ez zituen biktimen eta memoria-elkarteen itxaropenak bete, horrexegatik beharrezkoa zen aldaketa bat «biktima guztien aitortza eta erreparazioa lortzeko, Gizateriaren Aurkako Krimenei buruzko Nazio Batuen doktrina aplikatuz eta Estatuak biktimekiko dituen erantzukizunak bere gain hartzeko» (Aguilar Fernández eta Jimeno Araguren, 2023, 79. or.).

Kontrako argudio horiek kontsideratu ez eta, 2022. urtean Legea onartzea lortu zenean, memoria betebeharrak moral gisa interpretatzeko joeraren aurkako kritikak egiten jarraitu zuten. Adibidez, Alderdi Popularrak, Voxek eta Ciudadanosek lege hori «EH-Bildu Legea» bezala izendatu zuten, alderdi abertzalearen babesa lortzeko, beste neurri batzuen artean, biktimen aitortza 1983. urtera arte luzatzea lortu zutelako polizien eskutik emandako tratu txarrak kontsiderazio haien barruan sartuz.

3.2. Erkidegoko memoria-legeen indargabetzeak

2007ko legearen hibernazio-prozesuaren ondorioz suertaturiko erkidego-legeak, ordea, ondorengo urteetan aurreko azpiatalean aipatu ditugun diskurtso politikoaren diana bihurtu ziren. Adibidez, 1/2024 Legea, otsailaren 15ekoa, Aragoiko Memoria Demokratikoaren azaroaren 8ko 14/2018 Legea indargabetzekoa; 5/2024 Konkordia Legea, uztailaren 26koa, Valentziako Erkidegoarena —14/2017 Legea indargabetu zuena—; edo 1/2024 Legea, azaroaren 8koa, Kantabriako Memoria Historikoaren eta Demokratikoaren azaroaren 17ko 8/2021 Legea indargabetzekoa, Alderdi Popularrak eta Vox alderdiak eskualdeetan duten gehiengo parlamentarioaz baliaturik, memoria-legeen aurkako legislazioa garatu dute.

Haien argudioen artean, legeek bat egiten dute Valentziako Erkidegoko 5/2024 Legeak bere hitzaurrean aipatzen duen ideia honekin: «Memoria-legeen esku-sartze, hertsapen eta eskubide-murrizketen aurrean, estatuak iraganari dagokionez dituen betebeharrak nagusiak askatasunen babesa eta herentzian jasoriko adiskidetzeari babestu behar dituela gogoratu behar da» (Valentziako Erkidegoa, 2024). Horren ondorio, memoria-legeek eskubideak murrizten dituztela kontsideratzen dute, hainbat argudiotan bat eginik, adibidez:

1. Memoria-legeek memoria moldatzen dute, ikuspegi bakarra eta kontakizun ofizial bat inposatuz. Esaterako, Bigarren Errepublika idealizatu egiten dute, historia-tarte horretan gertaturiko gaitzak ahaztuz.

Aipatutako Legean, besteak beste, Bigarren Errepublikaren muturreko idealizazioa jasotzen da, gure historiaren garai asaldatu hori egungo demokraziaren ereduarekin lotu nahian; Gerra Zibilean alderdi batek egindako krimenak eta ankerkeriak gaitzestea, baina besteak egindakoak erlatibizatzea, eta heriotza eta errepresioa jasan zuten «biktima» batzuei definizioa mugatzea, baina ez beste batzuei (Aragoiko Lehendakartza, 2024).

2. Kontakizun ofizial bat inposatzeko orduan, herritarrek askatasunak galtzen dituzte, iragana nahi duten moduan interpretatzeko askatasuna, adibidez. Kantabriako Lege berriak eskubide horien murriztapenen ildoan, hitzez hitz honako hau dio:

Legeak Egiaren Batzorde bat kontsideratzen du [...] gizarte osoari borrokalariaren zati baten kontakizuna inposatzeko, gertatutakoarekin bat etorri ala ez: botere politikoak izendatutako ustezko adituen batzorde bat, kontakizun historikoa bideratzeko, egia ofizial bat inposatzeko eta inor hortik aldentu ez dadin eskatzeko balio duena. Hau da, botere politikoak [...] kontakizun historiko bat egiten du, batzuen rola goraipatuz eta beste batzuen sufrimendua alde batera utziz; guztiei errespetua eta obedientzia (ikerketa historikoa barne) eskatzen die, eta, gainera, diskurtso horretatik desbideratzen direnei zigorrak ezartzeko ahalmena. Testuinguru honek Mao Zedongen Txinaren edo Fidel Castoren Kubaren antz handiagoa dauka, Mendebaldeko gizarte demokratiko batenak baino (Kantabriako Gobernuak, 2024).

3. Trantsizioak etorkizuneko gaitzak ahazteko balio izan zuen gizartearen adostasuna edo paktua lortuz. Memoria-legeek adostasun hori apurtzen dute.

52/2007 Legeak [...] eta 14/2017 Legeak [...] ez dituzte trantsizioa bultzaturiko askatasun-, errespetu- eta tolerantzia-balioak bilatzen, Estatu espainiarren kontzientziaren esparruan sartzen delako, haien memoria indibiduala moldatuz, iritzi-askatasuna eragotziz, katedra-askatasuna mugatuz eta historialarien lana zigortuz, baldin eta ez badira egokitzen alderdi politiko jakin batzuen interpretazio sektario eta interesatueta (Valentziako Erkidegoa, 2024).

3.3. Euskadiko Memoria Historikoaren eta Demokratikoaren 9/2023 Legea

Memoria-legeen aldeko eta kontrako eztabaida honetan onartu zen Euskadiko Memoria Historikoaren eta Demokratikoaren 9/2023 Legea. Aurreko legealdian saiakerak egin ziren arren —Frankismoaren Krimenen aurkako Euskal Plataformak, adibidez, Herri Ekimen Legegile bat sustatuko zuela adierazi zuen—, ez zen 2023ko irailaren 28ra arte izan eta aldeko 64 botorekin eta kontrako 7 botorekin, Eusko Legebiltzarrak legea onartu zuen. Horrela, gure eskualdean 1983. urtean memoria-legeak legeztatzen hasi zirenetik —ondorio pertsonal eta profesionalak erreparatzeko asmoz—, 9/2023 Legea adibide berriena dugu gai honen inguruan, 2014an 4/2014 Legeak Memoriaren, Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Institutuaren (Gogora) sorrera arautu zuen legislatzioari lekua hartuz.

Aurreko ataletan aipatu izan ditugun xedeekin eta hartzaileen zerrendarekin batera, nabarmentzekoak dira legearen beste hainbat eduki. Haren 12 Kapitulua, 50 Artikulu, 5 Xedapen Gehigarri, 3 Xedapen Iragankor, Xedapen Indargabetzaile bat eta 2 Azken Xedapenetatik, aipagarriak dira Printzipio Orokorretan 2. artikulua arautzen dituen eskubideak, Administrazioari horiek gauzatzeko mandatua ezarri:

1. Egia jakiteko eskubidea (II. Kapitulua, 6-8 artikulua): Gerra Zibilean eta diktadura frankistan gauzatu ziren injustizia historiko eta politikoak ezagutzeko eskubidea, baita horien biktimak identifikatzeko eta haien testigantza biltzeko neurriak hartzea eta gertaerei buruzko informazioa biltzen duten artxiboetan eta dokumentuetan herritarrei sarbidea bermatzeko erraztasunak ematea.
2. Justizia izateko eskubidea (III. Kapitulua, 9-13 artikulua): delituren bat egin izanaren zantzuak jakinaraztea, Gogoraren eskutik hartzaileei informazioa eta aholkularitza eskaintzea, nazio-mailako eta nazioarteko erakundeen gomendioak sustatzea eta jarraitzea eta nazioarteko justiziarekin kolaboratzea.
3. Aitortza eta erabateko erreparazio eraginkorra izateko eskubidea (IV. Kapitulua, 14-17 artikulua): aitortza indibiduala frogagiri fede-emaile baten bidez egiaztatzeko aukera, erakunde politiko eta sindikalen aitortza kolektiboa edo biktimei aitortzen zaizkien erreparazio-neurri ekonomikoak aztertzeko eta ezartzeko arduradun egitea.

Bestalde, Legeak genero-ikuspegia txertatzen duen heinean, 5. artikuluan emakumeen memoria historikoa kontsideratzen du «berezik gerran eta diktaduran jasan zituzten mugak eta diskriminazioak —hezkuntza-arlokoak, ekonomikoak, sozialak eta kulturalak— ezagutzeko eta zabaltzeko, bai eta muga eta diskriminazio

horiek jasan zituzten emakumeei aitortza egiteko ere». Gainera, besteak beste, memoria historikoaren dibulgazioa sustatzeko (18. art.), desagertutako pertsonak berreskuratzeko (20. art.), biktimak lokalizatzeko, desobiratze eta identifikatzeko (23. art.) edo Euskadiko memoria historikoaren lekuak, guneak eta ibilbideak arautzeko (29. art.) neurriak ezartzen ditu.

Hala ere, kasu honetan Zioen Azalpenean «adostasun sozial, politiko eta instituzionala oso zabala dela» aipatzen den arren, hainbat alderdik kontrako argudioak defendatu zituzten —aurreko azpiataletan aipatu izan direnen norabide berean—. Vox-ek 9/2023 Legea kritikatu zuen «Gerra Zibilari eta diktadurari buruzko errebisionismo historikoa» egiteagatik, baita «ETaren biktimak kontuan ez hartzeagatik» ere. Alderdi Popularrak eta Ciudadanosek ere terrorismoaren erreferentziarik eza nabarmendu zuten, errepublikanoen eskutik errepresioa eta bortizkeria jasan izan zituzten pertsonak kontuan hartzen ez zirela ere salatuz.

4. Memoria eskubide zibil gisa defendatzeko argudioak

Alderdi politikoen argudio ideologikoak memoria-legeei erasotzeko erabili direla aurkeztu ondoren, aipatzekoa da badirela modu konstruktibo batean memoria betebeharrak moral gisa interpretatu ordez, «bira memorial» bat ematen ari dela defendatzen dutenak. Esaterako, Ricard Vinyes historialari katalanaren *Crítica de la razón compasiva* (2023) saiakera proposamen horren adibide da. Bertan, Vinyesek adierazten du Mendebaldeko plano kulturean sostengatzen joan den agindu kategoriko edo eredu kanoniko hori —memoria betebeharrak moral gisa— *arrazoi errukior* batean oinarritu dela. Arrazoi bat non biktimak memoria-prozesuen muin bihurtu diren, posizionamendu honek sufrimenduaren eta errukiaren ideiak hauen programen epizentrora eramanez (Vinyes, 2023, 22-23. or.).

Biktimak erdigunean jartzen dituen jarrerak —bereziki haien aitortza eta erreparazioa—, Piper Shafirek (2018, 498. or.) defendatzen duen bezala, kolektibo horiek espazio neutral batean kokatzea inplika dezake, kontakizun mingarri eta homogeneousatzaile baten azpian eta ustezko humanismo apolitiko, koloregabe eta usaingabe baten subjektu gisa. Protagonismo horretan, *minduen* adjektiboak inoiz baino indar handiagoa hartzen du, borroka politikoen bidez gizarte-eraldaketako eragile gisa duten indar politikoa kentzen baitzaie (Piper Shafir, 2018, 495. or.). Apurtu egin daitezkeen kategoria eta maila desberdinak dira, baldin eta, existentzia eta mina ukatzera iritsi gabe, askotariko egoerak, zentzuak eta subjektuak daudela aitortuko balitz, horiek ez baitira beti sakrifizio-konnotazio batean sartu behar (Piper Shafir, 2018, 498. or.).

Hala, Vinyesen lanaren xedea salatzea da «biktimaren sufrimenduek herritar parte-hartzaileen memoria politiko eta sozialak ordezkatu dituztela» (Vinyes, 2023, 47. or.). Historialariaren arabera, Estatua administratu duten gobernu ezberdinek —Espainiako Estatuaz ari da— erakundeek «basamentu etikoa» aitortzea saihestu dute, baita «herrialdean lortutako demokrazia» ahalegin koral eta parte-

hartzaile baten emaitza izan zela, 60ko eta 70eko mobilizazioen ondorioa (Vinyes, 2023, 47. or.; Jelin eta Vinyes, 2021, 35. or.). Hau da, «hustuketa etikoa eta politikoa» egiten da, diktaduraren balioen desagerraraztearen eta horren unibertso sinbolikoa desagitearen ondoren ez zaiolako erreparatu suntsiketa gizatiar eta etikoari, erresistentziaren berrezarpen sozial eta moralari, gizarte parte-hartzaileak sustaturiko espresioen garrantziari (Vinyes, 2014a, 157-159. or.; 2014b, 1029. or.).

Beraz, memoria betebeharrak moralizat hartzeari aurre egiten dion proposamenak bigarren atalean aipaturiko agindu kategorikoak alde batera uztea eta haien ordezkari komunitatean pentsatzeko eta ulertzeko moduen garrantzia ezartzea du helburutzat, horien oroitza eta ahanzturak askatasunez aukeratzeko eta tratatzeko bidea erraztuz (Vinyes, 2023, 21. or.). Horrela, Vinyesek Manuel-Reyes Materi egiten dion kritiketako bat da azken horrek memoria betebeharrak moduan sorrera-datu bat ezartzen diola: 1945ean, kontzentrazio-esparruen askapena egin zenean eta, ados jarri gabe, bizirik atera zirenek «inoiz gehiago ez!» esan zutenean (Mate, 2008, 28. or.; 2016, 8. or.). Vinyesek fantasiazat jotzen du baieztapen hori; izan ere, haren ustez, askapena ez zen alai izan, eta ez dago konstantziarik «faxismoa suntsitzeko oroimen mota konkretu bat arma gisa erabili zutenik» (Vinyes, 2023, 35. or.).

Ondorioz, biktimaren errealitateari bi bidetatik hel diezaiokegu kataluniarraren arabera:

1. Berradiskidetze-ideologiak sustatzen dituen bidetik, ezberdintasunak eta gatazkak ukatuz —politika publikoen ohiko aukera, adibidez, 9/2023 Legeak, bere 2.1. artikuluan, printzipio orokor moduan, egia, justizia, berriro ez gertatzeko bermea edo elkartasunarekin batera, *bizikidetzat* aipatzen du—.
2. Gatazka eta ezberdintasunak onartzen dituen bidetik —adiskidetze-ideiek haserre, ezberdintasun eta tentsio handiagoa sortzen dutela argudiatuz—, non, honen oinarrian politika publiko bat sortzea duen helburu, espazio publiko partekatuetara bideratua, herritarrek adierazpen-askatasuna duten lan intelektual eta emozionala erraztuz (Vinyes, 2014b, 1042. or.; 2023, 59. or.).

Vinyes bigarren aukeraren aldekoa da. Zapalduen testigantza eta kaltetuen sufrimendua mahai gainean jarri behar delako iritzia aurka —kriminologia kritiko globaletik defendatzen den bidearen kontrako, beraz—, herritarren parte-hartzean eragin behar dela defendatzen duen posizioa; gatazkak aitortuz, «herrialde baten ondare demokratikoa berrezarri eta herritarren erabilera bermatuko duten» espazio etikoetatik abiatuta hartu behar den bidea (Vinyes, 2023, 117. or.). Ondorioz, memoria-legeek, haren aburuz, memoria gizarte-lana egin ahal ez izatea dakarte, memoria ofizialak ez baitu kontrako narratibarik onartzen. Hortaz, bukatutako memoria baten aurrean egongo ginateke, memoria lehorra, orainaldira itxita dagoena: «Memoriaren inperatiboa erlijio-izaerako postulatu moral bat besterik ez da, denborarekin eta testuinguru historikoaren arabera ideologia desberdinek kolonizatu egiten dutena. Doktrina-kohesioaren eta irakaspenaren oinarritzko erabilerekin» (Vinyes, 2014b, 1031. or.).

4.1. Bira memoriala

Jarrera hori indartzeko, Vinyesek dio azken bi hamarkadetan «bira memorial» bat egiten ari dela. Egoera hori hiru aspektutan nabarmentzen du:

1. Memoria betebeharrak gisa kontsideratzen duen eredu kanonikotik memoria *eskubide zibil* gisa hartzen duen eredu bermatzailerak igarotzearen ondorioz, eskubide honek Administrazioa betebeharrak bat betetzera darama: iraganaren irudia eraikitzeak aukera herritarrei bermatzea (Vinyes, 2023, 60-61. or.). Hala, Estatuak ezartzen duten «egia ezagutzeko eskubidearen» aurrean —9/2023 Legearen II. kapitulua—, baita gertakari historikoak interpretatzeko edo legearekin bat ez datozen jarrerak zigortzearen aurrean, uste da «inoiz gehiago ez!» delako aginduak «etorkizunaren eraikuntza oztopatu eta itsutzen» duela (Jelin eta Vinyes, 2021, 37. or.).

Cómo será el pasado. Una conversación sobre el giro memorial (2021) lanean, Vinyesek Elizabeth Jelin soziologoarekin hitz egiten du, zalantzan jarri inperatibo kategoriko negatibo adornoarra «zer da gogoratu behar dena, zer ez errepikatzeko?» galdetzerakoan. Pertsona batek gogoratu nahi duena pertsona horrek berriro gertatzea nahi ez duen horretan dagoela uste dute. Hori dela eta, memoria betebeharrak gisa kontsideratzeak beti memoria zehatz baten zama duela uste dute, ez edonorena, baizik eta «ontzat» jotzen dugunarena (Jelin eta Vinyes, 2021, 37. or.).

2. Memoriari gaizkitik eta kaltetik babesteko ematen diogun «agindu pedagogikoaren» ideiatik bereiziz, eta hori ikasgai moralizat jotzeari utziz, iraganaren aurrean jarrera etikoa izateko esperientziak eskuratzea ahalbidetzen duen eskubide eta betebeharrak izatera pasatzeko aukera ematen ari da (Vinyes, 2023, 63. or.; Jelin eta Vinyes, 2021, 42. or.). Eredu bermatzaile baten pean, memoriak iraganera heltzeko aukera berdintsua bermatu behar du, baita horren irudikapen eta izendapenetara ere (Jelin eta Vinyes, 2021, 40-41. or.).
3. Memoria ez da «egia» gisa interpretatu behar, eraikuntza sozial gisa baizik. Konstruktua garaikide bat, Elizabeth Jelinek edo Isabel Piper Shafirrek definitzen duten ildoan, izaera subjektiboko prozesu bat eragiten duena, euskarri eta esparru sozialean ainguratua (Jelin, 2018, 272. or.); «sinbolikoki eraikitako ekintza sozial, politiko eta kultural bat», praktika performatibo gisa, leku, isiltasun, gorputz eta artefaktu bihurtzen dena, bertsio kontra-hegemonikoen eraikuntzan lagunduz (Piper Shafir, Fernández Droguett eta Iñiguez Rueda, 2013, 2/5. or.).

Egia bat bilatzen duten memoriaren politika publikoen aurrean, Jelinek —bira memorialean sar dezakegun autoreak— dio memoria borroka politikorako espazio bat dela. Horregatik, ez dago memoria, ikuspegi edo interpretazio bakar bat (Jelin, [2002]2021, 27-28. or.). Iraganeko zentzuek, ahanztura historikoek eta isiluneek eragiten duten izaera aldakorreko eraikuntza sozialaren emaitza da memoria (Jelin, [2002]2021, 12. or.).

5. Nora goaz? (Ondorioak)

Kriminologia kritiko globalaren ikuspegitik, eginiko memoria-legeen joan etorriak eta aldeko eta kontrako argudioen azterketak erakusten digu ukaezina dela baieztatzea memoriak leku zentrala duela gaitzen salaketan. Adibidez, kriminologia kritiko globalaren oinarrietako bat egiturazko indarkeriak ikerketa-objektu moduan berreskuratzea den heinean, azpimarratu dezakegu memoria-arloko erreparazio, aitortza eta indarkerien salaketak, askotan, justizian ibilbide oso laburra duela. Horregatik, krimena eta delitua gauza bera ez diren heinean, Zigor Kodean tipifikaturik ez dauden indarkeriak salatzeke orduan garrantzi handia dute esparru honetan egin daitezkeen ikerketek —baita beste hainbat diziplinatatik, historia, zuzenbidea, politika-zientziak, soziologia edo filosofia, esaterako—.

Horrela, Euskadiko Memoria Historikoaren eta Demokratikoaren 9/2023 Legea gidalerro izanik, testuinguruko beste hainbat memoria-legeren joerarekin batera, honako emaitza hauetara heldu gara:

1. Memoria-legeak *memoria betebeharrak moral gisa* interpretatzen duen joeran oinarritzen dira. Horrek esan nahi du gizarte moduan horrelako gaitzak berriro ez errepikatzeko betebeharrak etikoa izan behar dugula, mezu horren oinarrian biktimen eta zapalduen testigantza izanik —«guztioak aurkitzen garen egia erlatiboa» inplikaturik (Mate, 2008, 28. or.)—.
2. Memoria-legeei eraso diete kontrako eta hobetu beharreko argudioen bidez. Argudio horiek zenbait alderdi eta alorretatik etorri dira:
 - 2.1. Alderdi politikoetatik: eskuineko eta ultraeskuineko alderdiek onarturiko memoria-legeen aurka egin dute Trantsizioak ekarri zuen adostasun soziala urratzeagatik, kontakizun eta egia ofizial bat ezartzeagatik edo herritarrei etorkizunari buruzko gogoeta egiteko askatasuna ukatzeagatik.
 - 2.2. Biktima- eta memoria-kolektibo desberdinetatik: justizia-eskubidea oztopatzeagatik, aitorten faltagatik edo artxiboetara joateko eskuragarritasuna ez bermatzeagatik kritikatuak izan dira Nizkor Taldea edo FEFM elkartearen eskutik.
 - 2.3. Nazioarteko erakundeetatik: Egia, justizia, erreparazio eta ez-errepikatzeko bermeetarako Errelatore Bereziak edo Bortxaz Desagerrarazien Lantaldeak, adibidez, 2014. urtean aurkezturiko txostenetan —Memoria Historikoaren 2007ko Legearen harira— Espainiako Estatuari konpromiso irmoa erakustea eskatu zioten egia, justizia, erreparazioa eta ez errepikatzeko bermeak izateko eskubideak emateko edo bortxaz desagerrarazien arloan presaz eta bizkor jardutea.
 - 2.4. Akademiatik: biktimak erdigunean jartzean haien sufrimenduen eta arrazoi errukiorraren irudia defendatzeagatik kritikatuak izan dira Ricard Vinyes edo Elizabeth Jelin pentsalarien eskutik. Baita demokraziaren jatorrian eta legeen zentzuan ez gelditzeagatik, ez eta gizarteak mobilizazioetan izandako parte-hartzean.

3. Akademiatik egin diren kritiken harira, *memoria eskubide zibil gisa* proposatzen duten interpretazioak daude. Horrek pauso edo bira bat ekarri du behar moralaren eredu kanonikotik, eta Administrazioak betebeharrak bat betetzera eraman: askatasunez iraganaren irudia eraikitzeko aukera herritarrei bermatzea.

Eraitza hauek argi erakusten dute memoriaren ikerketa-alorra ez dela adostasun batean oinarritzen. Ikusitakoaren harira, honelako zalantzak planteatu ditzakegu: Memoria-legeak nahikoak dira gaitzak salatzen? Memoria-legeetan arautzen diren neurriek indarkeriak eta gatazkak berriro ez errepikatzen baldintzak ahalbidetzen dituzte? Estatuak eta Administrazioa nahastu egin al dira memoria betebeharrak moral gisa oinarri hartzen duten memoria-politika publikoak sortzerakoan? Non dago arazoa biktimak politika horien ardatz gisa kokatzeko orduan? Zein oinarriaren gainean eraiki behar dugu iragana gogoratzeko erronka? Zergatik dago gaizki zapalduen papera kontuan hartuta aldaketa eraikitzea? Memoria Estatuari iraganari buruz eztabaidatzeko espazioak sortzeko eskatzen dien eskubide zibil gisa ulertu beharko genuke? Vinyesen argudioek alderdi ultraeskuindarrek erabiltzen dituzten memoriaren aurkako politiken antza al dute?

Hortaz, nora goaz galdetzeko orduan, kontuan izan behar dugu memoria ontologikoki hutsik dagoen kontzeptua dela. Gizarteak berak, denbora eta testuinguru konkretu batean, esanahiz eta edukiz betetzen ditu memoria interpretatzeko ikuskerak. Zentzu horretan, gaueko testuinguruan, baieztatu daiteke memoria-legeak beharrezkoak direla. Alderdi eskuindarren eta ultraeskuindarren argudioetatik bereiziz, honelako legeak ez dira alferrikakoak, biktimen aitortzak, gorputzen desobiratzeak eta desagertutakoak zerrenda txikitzeak, esaterako, gure gizartearen egiteke dauden zereginak izaten jarraitzen dutelako.

Euskadiko Memoria Historikoaren eta Demokratikoaren 9/2023 Legeak, ondorioz, hainbat erkidegotan memoria-legeekin egin diren indargabetzeen testuinguru honetan erronka handia dauka. Etorkizunerantz begiratzen duen «gertatutakoa ez errepikatzen bermeak ezarriko dituen tresna» den edo ez denborak esango digu. Horregatik buru-belarri egon beharko dugu planteatzen dituen neurriak eta helburuak betetzen dituen edo ez jakiteko. Horrela jakin ahal izango dugu biktimen arrazoi errukiorrean oinarritzen den, biktimen sufrimenduak protagonismoa hartzen duen edo herritarren eskubideak bermatzen dituen edo ez. Ez diezaiogun aukerarik eta euskarririk eman populismoari gatazka pizteko eta kultura-eremuan etsaien eta gorrotoaren narrazioa sendotzeko.

6. Erreferentzia bibliografikoak

- Adorno, T.W. ([1966]1984). *Dialéctica negativa*. Taurus.
- Aguilar Fernández, P., eta Jimeno Aranguren, R. (2023). De la «Memoria Histórica» a la «Memoria Democrática». La evolución de las políticas públicas de memoria y justicia transicional en España. In Alberto Penadés eta Amuitz Garmendia (argtz.), *Informe sobre la democracia en España 2022. El largo plazo* (67-104. or.). Fundación Alternativas.

- Aragoiko Lehendakartzitza (2024ko otsailaren 29a). Ley 1/2024, de 15 de febrero, de derogación de la Ley 14/2018, de 8 de noviembre, de memoria democrática de Aragón. BOA-20240229001. <https://www.boa.aragon.es/cgi-bin/EBOA/BRSCGI?CMD=VEROB&MLKOB=1318890220404>
- Cuesta, J. (2019). Los debates sobre la memoria y la historia en España. La Ley de Memoria Histórica diez años después. In Jordi Guixé, Jesús Alonso Carballés eta Ricard Conesa (argtz.), *Diez años de leyes y políticas de memoria (2007-2017). La hibernación de la rana* (43-61. or.). Los libros de la Catarata.
- Estatuko Buruzagitza (2007ko abenduaren 27a). Ley 52/2007, de 26 de diciembre, por la que se reconocen y amplían derechos y se establecen medidas en favor de quienes padecieron persecución o violencia durante la guerra civil y la dictadura. BOE-A-2007-22296. <https://www.boe.es/eli/es/l/2007/12/26/52/con>
- Estatuko Buruzagitza (2022ko urriaren 20a). Ley 20/2022, de 19 de octubre, de Memoria Democrática. BOE-A-2022-17099. <https://www.boe.es/eli/es/l/2022/10/19/20/con>
- FEFM (2007ko apirilaren 19a). No hay atajos: Verdad, Justicia y Reparación. [rebellion.org. https://rebellion.org/no-hay-atajos-verdad-justicia-y-reparacion/](https://rebellion.org/no-hay-atajos-verdad-justicia-y-reparacion/)
- Gómez Garmendia, J. (2023). La influencia de la teoría crítica en la criminología crítica global en el centenario de la Escuela de Frankfurt (1923-2023). *Crítica Penal y Poder*, (25), 9-30.
- Gómez Garmendia, J. (2024). *Kriminologiaren printzipioak. Krimenaren testuinguruan hausnarketa kritikoa sustatzeko gidaliburua*. UEU.
- Guixé, J.; Alonso Carballés, J., eta Conesa, R. (2019). Introducción. In *Diez años de leyes y políticas de memoria (2007-2017). La hibernación de la rana* (11-14. or.). Los libros de la Catarata.
- Horkheimer, M., eta Adorno, T.W. ([1944]2016). *Dialéctica de la Ilustración: fragmentos filosóficos*. Trotta.
- Jelin, E. ([2002]2021). *Los trabajos de la memoria*. Fondo de Cultura Económica.
- Jelin, E. (2018). Memoria. In Ricard Vinyes (zuz.), *Diccionario de la memoria colectiva* (271-275. or.). Gedisa.
- Jelin, E., eta Vinyes, R. (2021). *Cómo será el pasado. Una conversación sobre el giro memorial*. Ned ediciones.
- Kant, E. ([1797]2008). *La metafísica de las costumbres*. Tecnos.
- Kantabriako Gobernua (2024ko azaroaren 12a). Ley de Cantabria 1/2024, de 8 de noviembre, de Derogación de la Ley de Cantabria 8/2021, de 17 de noviembre, de Memoria Histórica y Democrática de Cantabria. BOC-2024-9390. <https://boc.cantabria.es/boces/verAnuncioAction.do?idAnuBlob=412159>
- Lehendakartzitza (2023ko urriaren 17a). 9/2023 Legea, irailaren 28koa, Euskadiko Memoria Historikoarena eta Demokratikoarena. EHAA, 2023/4708. euskadi.eus/web01-bopv/eu/bopv2/datos/2023/10/2304708e.shtml
- Mate, M.-R. (2005). La memoria de Auschwitz hoy. *Conciencia Activa*, 21(8), 15-30.
- Mate, M.-R. (2008). *Justicia de las víctimas. Terrorismo, memoria, reconciliación*. Anthropos.
- Mate, M.-R. (2016). Memoria histórica y ética de las víctimas. *Página abierta*, (242), 6-13.
- NBBN (2014a). Informe del Relator Especial sobre la promoción de la verdad, la justicia, la reparación y las garantías de no repetición, Pablo de Greiff: Misión a España. Asamblea General de Naciones Unidas. A/HRC/27/56/Add.1. <https://digitallibrary.un.org/record/780611?ln=es&v=pdf>
- NBBN (2014b). Informe del Grupo de Trabajo sobre las Desapariciones Forzadas o Involuntarias: Adición: Misión a España. A/HRC/27/49/Add.1. <https://digitallibrary.un.org/record/788706?ln=es&v=pdf>

- Nizkor Taldea (2007ko urriaren 30a). Una ley aberrante. derechos.ogr. <https://www.derechos.org/nizkor/espana/doc/leyprensa.html>
- Piper Shafir, I.; Fernández Droguett, R., eta Iñiguez Rueda, L. (2013). Psicología social de la memoria: espacios y políticas del recuerdo, *PSYKHE*, 22(2), 19-31.
- Piper Shafir, I. (2018). Víctima. In Ricard Vinyes (zuz.), *Diccionario de la memoria colectiva* (494-498. or.). Gedisa.
- Rivera Beiras, I. (2016). Hacia una criminología crítica global. *Athenea Digital*, 16(1), 23-41.
- Sierp, A. (2019). Las políticas europeas de la memoria: ¿un ejemplo de conflicto productivo? In Jordi Guixé, Jesús Alonso Carballés eta Ricard Conesa (argtz.), *Diez años de leyes y políticas de memoria (2007-2017). La hibernación de la rana* (17-26. or.). Los libros de la Catarata.
- Valentziako Erkidegoa (2024ko uztailaren 29a). Ley 5/2024, de 26 de julio, de Concordia de la Comunitat Valenciana. DOGV-C-2024-7831. <https://dogv.gva.es/es/eli/es-vc/l/2024/07/26/5/dof/spa/html>
- Vinyes, R. (2014a). La buena memoria. El universo simbólico de la reconciliación en la España democrática. Relatos y símbolos en el texto urbano. *Ayer*, 96(4), 155-181.
- Vinyes, R. (2014b). Naturaleza y consecuencias del conflicto memorial en España. Entre la impunidad y la privatización. *Anuario del Conflicto Social*, (3), 1025-1042.
- Vinyes, R. (2023). *Crítica de la razón compasiva. Reconstrucción, transmisión y poder en la memoria del pasado*. Icaria.